**Gipuzkoako Foru Aldundia**
Diputatu Nagusiaren Alorra

Diputación Foral de Gipuzkoa
Área del Diputado General

## KONTRATAZIOA MAHAIAREN ERABAKIA / ACUERDO DE LA MESA DE CONTRATACIÓN

Diputatuen Kontseiluak, 2019ko abenduaren 17ko erabaki bidez, onartu zuen GIPUZKOAKO TOKIKO ADMINISTRAZIOETAN EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO POLITIKAK SUSTATU ETA INDARTZEKO zerbitzuen kontratazio espedientea (2019328CO600), prozedura irekia eta tramitazio aurreratua erabiliz. Kontratuaren lizitazio aurrekontua 401.357,00 eurokoa zen eta lana burutzeko haslerako epea bi urtekoa zen.

Mediante el acuerdo del Consejo de Gobierno Foral, de 17 de diciembre de 2019, se aprobó el expediente de contratación, por el procedimiento abierto y de tramitación anticipada, para la contratación de los servicios de IMPULSO Y FORTALECIMIENTO DE LAS POLÍTICAS PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES EN LAS ADMINISTRACIONES LOCALES DE GIPUZKOA (2019328CO600), con un presupuesto de licitación de 401.357,00 euros (IVA incluido), y un plazo de ejecución inicial de dos años.

Kontratazio Mahaia 2020ko otsailaren 3an bildu zen aipatutako kontratazio espedientean aurkeztu diren proposamenetako 2 zenbakiko artxibo elektronikoa irekitzeko.

Con fecha 3 de febrero de 2020 la Mesa de Contratación se reunió para la apertura del archivo electrónico nº 2 que forman parte de las proposiciones presentadas en el citado expediente de contratación.

Baldintza administratiboen agiriaren 20. atalean adierazten da zein dokumentu sartu behar diren BI zk.ko artxibo elektronikoan, balio-judizioaren bitartez baloratu beharreko dokumentazioari buruzkoak.

En el apartado 20 del pliego de cláusulas administrativas se señala la documentación que se ha de incluir en el sobre o archivo electrónico nº DOS, relativa a la documentación a valorar conforme a un juicio de valor.

Atal horren 2. puntuan ondorengoa jasotzen da: artxibo elektroniko honetan ez da inolaz ere sartuko HIRU zenbakiko gutun azal edo artxibo elektronikoan behar duen dokumenturik.

En el punto 2 de dicho apartado se indica que en ningún caso deberán incluirse en este archivo electrónico documentos propios del sobre o archivo electrónico nº TRES.

ARETÉ-ACTIVA, SL enpresak eskaintza aurkeztu duen 3 sortetako 2 zenbakiko artxibo elektronikoan aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, antzeman da honako dokumentu hau sartu duela bertan:

IX. eranskina.- ESKAINTZA EKONOMIKORAKO ETA FORMULA BIDEZ EBALUATZEKO ESKAINTZAKO BESTE ELEMENTUETARAKO EREDUA

Una vez examinada la documentación presentada en el archivo electrónico nº 2 de los 3 lotes en que ha presentado oferta la empresa ARETÉ-ACTIVA, S.L., se ha comprobado que en dicho archivo electrónico se ha incluido el siguiente documento:

- Anexo IX.- MODELO DE OFERTA ECONÓMICA Y DE LOS OTROS ELEMENTOS DE LA OFERTA EVALUABLES MEDIANTE FÓRMULAS

Gertakari horren ondorioz, aztertu behar da zein garrantzia eta ondorio juridiko dituen empresa ARETÉ-ACTIVA, SL enpresak 2 zenbakiko artxibo elektronikoan sartu izanak (automatikoki balioestekoak ez diren balorazio irizpideei buruzko dokumentazioa) 3 zenbakiko artxibo elektronikoan sartu beharreko informazioa (proposamen ekonomikoa eta automatikoki balioestekoak diren gainerako irizpideak).

Este hecho lleva a tener que determinar la relevancia y las consecuencias jurídicas que derivan de la inclusión por parte de empresa ARETÉ-ACTIVA, S.L.. en el archivo electrónico nº 2 (documentación relativa a los criterios de valoración no evaluables automáticamente) información que debe incluirse en el sobre nº 3 (proposición económica y demás criterios evaluables automáticamente).

Zentzu horretan, adierazi behar dugu ezen, 2017ko azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 139.2 eta 157 artikuluek xedatutakoaren arabera, ezaugarri tekniko eta ekonomikoak jasotzen dituzten interesdunen proposamenak isilpean gorde behar direla ireki behar diren unera arte.

En este sentido, cabe señalar que los artículos 139.2 y 157 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público establecen que las proposiciones de los interesados conteniendo las características técnicas y económicas deben mantenerse secretas hasta el momento en que deban ser abiertas.

SPKLren 139.2 eta 157 artikuluetan xedatutakoa bete beharrak gorabehera ugari sortu ditu praktikan, eta horiei buruzko iritzi asko eman dituzte jurisdikzioko organo nahiz administratibo eskudunek, zeintzuen doktrinak ia bat baitatoz adieraztean zein ondorio dituen hainbat betebehar ez betetzeak, zehazki lizitatzaileek dokumentazioa gutun-azal bereizietan aurkeztekoa eta legeak agindutako unera arte proposamenak isilpenak edukitzekoa. Kontratu Errekurtsoen Auzitegi Administratibo Zentralaren irizpidea laburtzen da 62/2013 Ebazpenean, urtarrilaren 17koan (328/2012 Errekurtsoa), non adierazten baita ezen *auzitegi horrek irizpide hau ezarri duela bere ebazpenetan: alde batetik, lizitatzaileen baztertzea berrestekoa, baldin eta haiek beren eskaintzen informazioa sartu bazuten (balio judizioaren arabera balioestekoak nahiz formula bidez balioestekoak) aldez aurreko baldintzei dagokien gutun-azalean (147/2011* eta *67/2012* ebazpenak, *114/2011* eta *47/2012)* errekurtsoei buruzkoak); eta bestetik, baita formula bidez balioestekoa den informazioa balio judizioaren araberako informazioari dagokion gutun-azalean sartzen dutenak ere (*191/2011* eta *299/2011* ebazpenak, *156/2011* eta *253/2011 errekurtsoei buruzkoak).*"

El incumplimiento de lo preceptuado en los artículos 139.2 y 157 de la LCSP, ha dado lugar en la práctica a numerosas incidencias, que han sido objeto de numerosos pronunciamientos de los órganos jurisdiccionales y administrativos competentes, los cuales mantienen una doctrina prácticamente unánime sobre las consecuencias que tiene el incumplimiento de las exigencias relativas a la necesidad de presentar la documentación de los licitadores en sobres separados y mantener el secreto de las proposiciones hasta el momento que marca la ley. El Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales resume su criterio en su Resolución 62/2013, de 17 de enero (Recurso 328/2012), señalando que "*Este Tribunal, en sus resoluciones, ha sentado el criterio, por un lado, de confirmar la exclusión de aquellos licitadores que incluyeron información de sus ofertas (ya se trate de criterios sujetos a juicio de valor o evaluable mediante fórmulas) en el sobre relativo al cumplimiento de requisitos previos (resoluciones 147/2011 y 67/2012, relativas a los recursos 114/2011 y 47/2012), así como para el supuesto de inclusión de información evaluable mediante fórmulas en el sobre correspondiente a la información sujeta a juicio de valor (resoluciones 191/2011 y 299/2011, referidas a los recursos 156/2011 y 253/2011).*

Eskaintzen informazioa sartzea aldez aurreko baldintzei buruzko gutun-azalean gardentasun printzipioaren aurkakoa da, zeinak eskatzen baitu haiek isilpean gorde behar direla irekiera publikoaren unera arte, KLTBaren 139.2 eta 157 artikuluetan xedatutakoaren arabera. Estatuko Kontratazio Administratiboaren Aholku Batzordeak ere irizpide hori du, hala ageri baita, besteak beste, txosten hauetan: abenduaren 17ko 43/02 txostena, martxoaren 26ko 20/07 txostena, eta abenduaren 15eko 30/11 txostena.

La inclusión de información de las ofertas en el sobre relativo al cumplimiento de los requisitos previos, conculca el principio de transparencia que exige mantener el secreto de las mismas hasta el momento de proceder a la apertura pública, de acuerdo con lo previsto en los artículos 139.2 y 157 de LCSP. La Junta Consultiva de Contratación Administrativa del Estado mantiene este mismo criterio, entre otros, en los Informes 43/02, de 17 de diciembre, 20/07, de 26 de marzo, y 30/11, de 15 de diciembre.

Zentzu horretan, Kontratu Errekurtsoen Auzitegi Administratibo Zentralaren 137/2014 Ebazpenak adierazten du ezen, *dokumentazioa bereizita* aurkezteko *betebeharra betetzen ez duten lizitatzaileen dokumentazioa (balio judizioaren arabera balioestekoa eta automatikoki balioestekoa) onartuko balitz, horren ondorioa litzatekeela balorazioa egin behar duten teknikariek betebeharra bete ez dutenei buruzko informazio jakin baten berri*

En este sentido la Resolución nº 137/2014, de 21 de febrero, del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales señala que "...*si se admitieran las documentaciones correspondientes a los licitadores que no han cumplido la exigencia de presentar separadamente la documentación exigida, la sujeta a juicio de valor, y la evaluable de forma automática, ello haría que los técnicos al realizar su valoración, dispusieran de una información que no es*

*izango luketela, beste lizitatzaileena ez bezala, eta beraz, beste eskaintzetan ez dagoen judizioko elementu bat jakinda balioetsiko luketela, SPKLTBak jasotako tratu berdintasunaren eta ez diskriminazioko printzipioak hautsiz. Halaber, horrek ekarriko luke proposamenak isilpean gorde beharraren printzipioa urratzea, aipatutako legearen 145.2 artikuluan jasotakoa; izan ere, 3. gutun-azalean sartu beharreko dokumentazio edo informazioaren berri izango litzateke irekiera egin baino lehen.*

Hori dela eta, parte hartu duen 3 sortetan, 3 zenbakiko artxibo elektronikoan sartu beharreko informazioa 2 zenbakiko artxiboan sartu dela antzeman denez, ondorioztatu da ARETÉ-ACTIVA, SL enpresak Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 139.2 eta 157 artikuluak urratu dituela.

Ondorioz, Kontratazio Mahai honek

**ERABAKITZEN DU**

ARETÉ-ACTIVA, SL enpresa (IFZ: B31917503) GIPUZKOAKO TOKIKO ADMINISTRAZIOETAN EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO POLITIKAK SUSTATU ETA INDARTZEKO zerbitzuen kontratatzeko prozeduratik (2019328CO600) kanpo uztea, eskaintza aurkeztu duen hiru sortetan, arrazoi hauengatik: Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 139.2 eta 157 artikuluak urratu dituelako, eta baldintza administratiboen agiriko eskakizunak ez betetzeagatik.

Kontratazio Mahaiaren erabaki honen aurka partikularrek aurkez dezakete Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 44. artikuluan aipatzen den kontratazioko errekurtso berezia, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboan, 15 egun balioduneko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik hasita.

Halaber, interesatuek erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako administrazioarekiko auzietako epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Bide hori erabili aurretik aurreko paragrafoan aipatutako kontratazioko errekurtso berezia aurkeztu bada, epea abian jarriko da errekurtso hori ebazten den egunean eta ezingo da administrazioarekiko

*conocida respecto de todos los licitadores, sino sólo de aquéllos que han incumplido la exigencia reseñada, lo cual supone que su oferta será valorada con conocimiento de un elemento de juicio que falta en las otras infringiéndose así los principios de igualdad de trato v no discriminación consagrados en el TRLCSP (...) Ello supondría también la infracción del principio de secreto de las proposiciones exigido en el artículo 145. 2 de la Ley citada, pues documentación o información que debiera de estar incorporada en el sobre nº 3 se conoce con anterioridad a la apertura del mismo".*

En consecuencia, constatada la introducción de información correspondiente al archivo electrónico 3º en el 2º, en los 3 lotes que participa, se concluye que las proposiciones de la empresa ARETÉ-ACTIVA, S.L. han vulnerado los artículos 139.2 y 157 de la Ley de Contratos del Sector Público.

Por lo tanto, esta Mesa de Contratación

**ACUERDA**

Excluir a la empresa ARETÉ-ACTIVA, S.L. (NIF: B31917503) del procedimiento para la contratación de los servicios de IMPULSO Y FORTALECIMIENTO DE LAS POLÍTICAS PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES EN LAS ADMINISTRACIONES LOCALES DE GIPUZKOA (2019328CO600), en los tres lotes que presenta oferta, por vulnerar los artículos 139.2 y 157 de la LCSP y por incumplir su proposición las especificaciones del pliego de cláusulas administrativas.

Contra el presente acuerdo de la Mesa de Contratación las personas interesadas podrán interponer el recurso especial en materia de contratación, a que se refiere el artículo 44 de la Ley de Contratos del Sector Público ante el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales en el plazo de 15 días hábiles a contar a partir del día siguiente a aquel en que se reciba la notificación.

Las personas interesadas podrán interponer asimismo contra este acuerdo recurso contencioso-administrativo ante los juzgados de lo contencioso-administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

Si previamente a la utilización de dicha vía se ha interpuesto el recurso especial en materia de contratación a que se ha hecho referencia en el párrafo anterior, el plazo comenzará a partir de la

auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta aipatutako errekurtso bereziaren ebazpena berariaz eman edo ustezko ezespena gertatu arte.

resolución de dicho recurso y no se podrá interponer el contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el recurso especial o se haya producido su desestimación presunta.

Donostia, 2020ko otsailaren 3a / San Sebastián, 3 de febrero de 2020

**KONTRATAZIO MAHAIAREN MAHAIBURUA / EL PRESIDENTE DE LA MESA DE CONTRATACIÓN**

**Sin./Fdo.: Juan Jose de Pedro Alonso**